

Idazleen hierarkizazioa euskal sisteman: idazleen ikuspegia eta irakaskuntzaren mikrosistema

Idurre Alonso Amezua

Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultateko irakaslea

Artikulu honek euskal literaturaren sistema du aztergai. Bertan aztertzen da, batetik, literaturaren erdiguneak eta periferiak nola eratzten diren eta zein izaera duten, eta bestetik, zer-nolako isla duen eskoletan hierarkizazio horrek. Horretarako, *delphy* erako galdeketak egin zaizkie hogeita hamalau euskal idazle eta kritikariri, ezagutzeko zein den beren ikuspegia sistemaren inguruan, eta galdeketa horren emaitzak eskaintzen dira hemen. Ondoren, Hego Euskal Herriko hogeita bat ikastetxetan jasotako elkarrizketen eta inkestren datuak aztertzen dira; horietan hemeretzi irakaslek eta zortziehundik gora ikaslek hartu dute parte.

GAKO-HITZAK: Euskal literatura · Sistema · Hierarkizazioa · Irakaskuntza.

Writers' hierarchy in the Basque literature system: writers' view and the teaching microsystem

This article sets out to analyze the Basque literature system examining how the centre and peripherals of literature are organized and what their nature is. It goes on to discuss how this hierarchy is reflected in teaching. A *delphy* questionnaire was conducted on thirty four Basque writers and critics to find out their views on the system and results are presented. Furthermore, interviews and questionnaires were carried out nineteen teachers and more than eight hundred students from twenty one schools in the Southern part of the Basque Country.

KEY WORDS: Basque literature · System · Hierarchy · Teaching.

Jasotze-data: 2012-02-07. *Onartze-data:* 2012-02-28.

1. Atarikoak

Literatur sistema orok erdigunea eta periferia bereizten dituen egitura dauka. Erdigunea kontsagratutako idazle, literatur genero nahiz lanek betetzen dute. Hierarkiak eratzen dituzten faktoreak askotarikoak izan ohi dira, eta aldakorrek dira denboran nahiz sistema batetik bestera. Faktore horien nolakotasunak eta indar-harremanek eragiten dute hierarkiak modu batekoak edo bestekoak izatea. Euskal literaturaren kasuan, ikusiko dugu merkatu-irizpideek nahiz literatur kalitateaz kanpoko beste irizpide batzuek indar handia erakusten dutela literaturaren hierarkizazio-prozesuetan.


Bestalde, literatur sistemetan eratzen diren hierarkiak mantentzeko joera erakusten du eskolak. Are gehiago, euskal literaturaren kasuan, eskolak hierarkietan eragiteko gaitasuna erakusten du. Izan ere, euskal literaturaren merkatua txikia izatearen ondorioz, irakaskuntzaren zirkuituan sartzen diren liburuek merkatuan eragin handia izaten dute, eta merkatuan nabarmentzeak eragiten du idazleak jendartean oihartzuna izatea (kasu batzuetan, idazlea salduenen zerrendan kokatzerainokoa); ondorioz, delako idazlea erdigune komertzialean koka dezake irakaskuntza-sistemak. Beraz, esan daiteke eskolaren garrantzia ez datzala soilik erdiguneak mantentzean; Euskal Herrikoa bezain sistema txikietan, gai da eskolaz kanpoko hierarkietan eragiteko ere, salmentetan daukan pisuagatik. Eta, gurpil zoroan, salmentetan nabarmentzen diren idazleek isla zuzena dute irakaskuntzan. Horrek ezinbesteko bihurtzen du galdera hauen inguruan hausnartzea: nola eratu dira euskal literaturaren erdiguneak? eta, nola islatzen dira horiek irakaskuntzan?

Artikulu honetan galdera horietatik abiatuko naiz, eta asmoa da euskal literaturaren sistemaren hutsuneak eta erronkak identifikatzea. Horretarako, lehenik, literatur sistemaren kontzeptua ulertzeko zertzelada batzuk eskainiko ditut. Bigarrenik, idazle eta kritikarien iritziak eta esperientziak bilduko ditut, eta azkenik, aztertuko dut eskolak zein ikuspegi eskaintzen duen idazleek nahiz kritikariek identifikatu dituzten hutsunekiko, eta orobat, zeintzuk diren eta zeren arabera hautatzen diren ikasleei transmititzen zaizkien erdigune literarioak. Datu hauek *Juan San Martin* eta *Santiago Onaindia* ikerketa-bekei esker bildu ahal izan ditut, eta 2009an aurkeztutako doktore-tesian garatu ditut sakonago. Edonola ere, irakurleak gaiari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, Alonso 2008 eta 2010a lanetara jo dezake.

2. Literaturaren kontzeptutik literatur sistemarenera

XX. mendeko hainbat teoriak agerian utzi dute literatura sare sozial batek osatzen duela. Sare horretan hainbat faktore daude¹ (idazleak, irakurleak,

1. Polisistemen Teorian aitzindari dugun Even-Zoharrek Jakobsonen hitzezko komunikazioaren eskema oinarri hartuta, literaturara egokitu zuen *A Scheme of the Literary System* (1990: 31) proposamenean, literatur sistemaren irudi osoa eskainiz.



argitaletxeak, ikastetxeak...), eta faktoreek elkarri eragiten diote. Hain zuzen, eragin horiek ahalbidetzen dute sistemaren funtzionamendua. Honela azaltzen du Even-Zoharrek (1997: 30) literatur sistema:

Kontsumitzaile batek kontsumi dezake ekoizle batek ekoiztiko produktu bat, baina produktua sortzeko eta kontsumitzeko erreperitorio komun bat egon behar da; erreperitorio horren erabilera bere transmisioa ahalbidetzen duten instituzioek eta merkatuak mugatu edo kontrolatzen dute. Batetik, aipatutako faktoreetako bat bera ere ezin da deskribatu modu isolatuan, eta bestetik, hautematen diren harreman motak eskemaren balizko ardatz guztietan gertatzen dira.

Horrez gain, teoria sistemikoetan sakondu duten hainbat autorek (Bourdieu, 1992; Even-Zohar, 1990; Lotman, 1973) literaturaren barne-egitura hierarkikoan *erdigunea* eta *periferia* bereizi dituzte, edota arte *kanonizatua* eta *ez-kanonizatua*. Kontzeptu horiek oso garrantzitsuak dira literatur sistemaren barnean gertatzen diren hierarkizazio-prozesuak ulertzeko, bai eta literaturaren beraren garapena ulertzeko ere (izan ere, erdiguneen eta periferien artean sortzen diren indar-harremanek eragiten dute literaturaren garapena). Horrela, une jakin batean periferian zegoen faktorea —idazlea, lana, literatur generoa...— erdigunera igaro daiteke beste une batean, eta alderantziz.

Artikulu honetan bereizi egin nahi izan ditut erdigunearen eta kanonaren kontzeptuak. Kanona kontsagrazio-prozesu baten azken maila dela esan daiteke, urteetan zehar jasotako onespeneren emaitza. Erdigunea, berriz, unean uneko arrakastaren ondorioa da, eta egoera sinkroniko bati egiten dio erreferentzia. Erdigunean egotea, bestalde, ezinbestekoa da kanonizaziorako; horrela, erdigunean dagoen idazlea denboraren joanean egongune berean mantentzeak kanonizatu egingo du. Baina erdigunean egoteak ez du kanonizazioa ziurtatzen. Baliteke erdigunean kokatu den idazlea denboraren poderioz periferiara igarotzea, inoiz kanonizatzerara iritsi gabe.

Artikulu honetan erdiguneez arituko naiz, irudipena baitut euskal literatura gazteegia dela oraindik literatur kanonez aritzeko.

3. Hierarkiaren inguruan idazle eta kritikariek dituzten iritziak

Egungo literatur sistemaren egoera inor gutxik ezagutzen du idazle eta kritikariek bezain ondo. Hori dela-eta, haiei eskatu diet euskal eremuan dauden hutsuneak identifikatzeko eta, hutsune horietatik abiatuta, etorkizunerako erronkak zehazteko. Hausnarketa hori egiteko abiapuntu bat eman diet: euskal literaturaren sisteman egiten diren idazleen hierarkizazio-prozesuak (alegia, erdigune eta periferien eraketa-prozesuak). Hortaz, atal honetan ezagutuko dugu adituek zein hutsune eta erronka ikusten dituzten prozesu horietan.

Orotara hogeita hamalau euskal idazle eta kritikariren iritziak bildu ditut hemen. Erantzuleen artean aniztasuna bilatu dut; orotara hogeita zazpi gizon eta zazpi andre izan dira galdeketa erantzun diotenak; lau 20-35 adin-tartean kokatzen dira, hamasei 36-50 artean, hamaika 51-65 artean eta bat 65 urtetik gorakoa da. Idatzi izan duten generoari dagokionez, denetariko idazleak ditugu: nobela, saiakera, antzerkia, biografia, narrazioa, poesia, haur eta gazte literatura, kronika

nahiz bertsoa idatzi dutenak. Bestalde, lau kritikarik eta hogeita hamar idazlek osatzen dute lagina, eta horien artean Euskadi Saria, Espainiako Sari Nazionala edo Espainiako Kritika Saria irabazi duten zortzi idazle daude (galdeketeri buruzko datu gehiago in Alonso, 2008). Hortaz, uste dut laginak datu esanguratsuak eskaintzen dituela euskal literaturaren sistemaren inguruan idazle nahiz kritikariek duten iritzia ezagutzeko. Funtsean, haien arteko adostasunetan oinarritutako emaitzak dira jasotakoak².

3.1. Hierarkizazio-prozesuen hutsuneak euskal eremuan

Oro har, idazle eta kritikariak bat datoz esatean literatur hierarkiak eta, zehazki, idazleen arteko mailaketak saihestezinak direla. Hori horrela izanik ere, kontuan hartu behar da idazleen hierarkiak eragin zuzena daukela periferiako idazleengan, hierarkien eraginez, sarritan literatur ekoizpenaren zati handi bat (periferikoa) galdu egiten baita. Euskal literaturaren irakurleak gutxi dira argitaratzen diren liburuekin alderatuta, eta periferiako idazleen irakurleak gutxiegi izaten dira idazleari nolabaiteko oihartzuna emateko.

Gainera, adituen ustez, euskal literaturaren kasuan oso handia da erdiguneetako autoreek duten sona, eta ondorioz, horien itzalpean geratzen dira gainerakoak. Ildo horretatik, idazle batzuek aipatzen dute belaunaldi oso baten egoera dela hori:

Kalterik handiena, gure kasuan, belaunaldi oso baten «ezabaketa mediatikoa» izan da, horrela esatea akaso gehiegikeria izango bada ere. Belaunaldi oparo eta aberatsa da, gainera, nire uste ezinbestean subjektiboan «ezabatu» dena. Atxaga, Saizarbitoria, Izagirre, Sarrionandia, Lertxundi eta abarregandik Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Kirmen Uribe eta abarreganaino egin du jauzi hierarkizazioak, 63ko belaunaldia edo tropela osatzen duten idazle handien lana baztertuz.

Bestalde, erdiguneko idazleek duten oihartzun handiak eragin du, idazle eta kritikari askoren ustez, erdiguneko idazleen lan guztiak ontzat ematea, eta periferiako idazleak, berriz, beren lana ere kalitatezkoa dela erakusten egon beharra une oro. Euskal literaturaren sisteman, gainera, erdiguneak sarritan literaturaz kanpoko faktoreen arabera eraten dira, zenbait idazleren ustez: merkatu-irizpideak, irizpide ideologikoak, taldekeriak...

Edozelan ere, erdiguneak sortzea saihestezina da, eta adituek diote lagungarri ere izan daitezkeela irakurleek erreferente batzuk izateko. Bestela, kalitatezko lanen eta kontsumo-lanen arteko muga gehiago lausotuko litzateke.

Baina, nolako erdigunea daukagu euskal literaturan adituen ustez? Zurruna eta estua; idazle gutxi batzuek dute lekua egongune horretan. Horri lotuta, aipatu da ezinbestekoa dela erdigunearen eta periferiaren artean maila gehiago bereiztea. Bestela, arriskua dago erdigunean ez dauden idazle guztiak modu berean tratatzeko:

2. Galdeketa egiteko *delphy* ikerketa-teknika erabili dut. Teknika horren helburua da aditu talde batek adostasunak bilatzea gai baten inguruan (Juaristi, 2003). *Delphy* teknikaren berezitasunetariko bat taldekideen anonimata da; hori dela-eta, hemen jaso diren aipuak ere anonimoak dira.

Ondo egindako hierarkizazio batek ez lioke kalterik egingo. Hierarkizazioa egin gabe dagoelakoan nago, ordea. Hasier Etxeberriaren *Bost idazle* liburua egindakoa izan da bakarra, nik uste. Baina bost idazle horien atzetik datozenak... Denak berdinak al dira? Komunikabideetan betetzen duten espazioari erreparatuz gero, baietz esango nuke. Berdin tratatuko dute hasiberri baten lehen liburua eta hogeitazko urteko liburua ateratzen daramatzen autore sendo batena... Orrialde erdiko elkarrizketa bana egin eta kito. Okerra da hori [...] Norbaitek egin behar du hierarkizazio «sofistikatuago» bat [...] Bestela, gero eta gehiago, salmentak bihurtzen dira hierarkizazioaren ardatz bakar, saltzen dutenak soilik agertzen dira egunkarietan.

Bestalde, euskal literaturaren erdigunez dihardugunean, bi hierarkia bereizi behar dira idazle eta kritikarien ustez: prestigioari dagokion hierarkia (kualitatiboa), eta sozialki onartuak diren idazleena (kuantitatiboa edo komertziala). Bi mailaketa horietako bakoitzaren eraketan literatur agente batzuek hartzen dute parte; hierarkizazio kualitatiboaren eragile nagusiak lanaren kalitatea, kritikak eta idazleak dira (Espainiako Kritika Saria ere aipatu da eragileen artean). Hierarkizazio komertzialarenak, berriz, salmentak, sari handiak (Espainiako Sari Nazionala eta Euskadi Saria), hedabideak, eskola, literatur generoa eta publizitatea zein promozioa.

3.2. Euskal literaturaren sistema sendotzeko bidean dauden erronkak

Aurreko atalean ezagutu dugu idazle eta kritikariek euskal literaturaren hierarkiaz duten iritzia. Dena dela, hierarkiak ez dira hutsetik sortzen, alegia, faktore asko daude hierarkien atzean, eta faktore horien indar-harremanek baldintzatzen dute hierarkiaren izaera. Merkatuak botere handia badauka, nabarmenduko diren idazleak merkatuan arrakasta dutenak izango dira; literaturaren barruko irizpideek (besteak beste, kritikek) indarra badute, kalitatea izango da erdiguneak eratzeko zutabe garrantzitsuena. Horrela, faktore bakoitzak bere egitekoa dauka erdigunearen eraketan. Ondorengo lerroetan ikusiko dugu idazle eta kritikarien ustez nola artikulatu behar diren literatur sistemako faktore garrantzitsuenak sistema sendo eta orekatua lortzeko.

Adituen esanetan, sisteman kalitatezko lanak edukitzeaz gain, garrantzitsua da lan horien zabalkundea ziurtatuta egotea. Horretarako, ekoizlearen, lanaren eta irakurlearen artean dauden bitartekariak sendotu egin behar dira (aldizkariak, irriak eta telebista-programak). Horrez gain, itzulpenetarako aukerak zabaltzeko ahalegina egin behar da, eta sortzez gutxiak diren kalitatezko lanei errekonozimendua eman behar zaie sari edo kritiken bidez.

Argitaletxeek ere kalitatezko lanen aldeko apustua egin behar dute, promozio indartsua eginez, publizitatea eta zabalpena eskainiz, edizio txukunak sortuz... azken batean, ezaugarri horiek emango diote prestigioa argitaletxeari.

Kalitatezko lanen irakurketa sustatzeaz gain, sistemak literatur kritika sendoa eta sistematikoa behar du, nola kritika dibulgatzailea, hala akademikoa. Lehenengoari dagokionez, kritika dibulgatzailearen funtzioa da irakurleei irizpideak ematea jakiteko zein lan mota deskribatzen den, zein irakurle motarentzat den egokia, zeintzuk diren lanaren bertuteak, estiloa, kalitatea... Horrekin batera, komeni da liburua idazlearen ibilbidean kokatzea, dituen berritasunak nahiz betiko estilotik mantendu duena azalduz. Obra hobeto ulertzen lagunduko duten

irakurketak ere aurkeztu behar ditu kritikariak. Halaber, idazleen ustez, kritikari dagokio merkatuak ezkututzen dituen kalitatezko lanak ezagutaraztea.

Kritika akademikoak dibulgaziozko ezaugarri batzuk ere izan behar ditu: liburuaren idazlearen ibilbide literarioan kokatu behar du, liburuaren berritasunak identifikatu behar ditu, eta balizko irakurketak eskaini. Horrez gain, kritika akademikoari dagokio inguruko literaturen joerak ezagutu eta euskal literaturarekin alderatzea, literatur korranteak identifikatzea eta literatur aroak zehazteko irizpideak jartzea. Lanen kalitatearen inguruan, azaldu behar du lana zerk egiten duen kalitatezko, irakurlearen orientazioari laguntzeko eta kalitatezko literatur erreferenteak bultzatzeko. Horrekin lotuta, hierarkizazio-irizpideak etengabe eguneratu eta eztabaidatu behar ditu.

Bestalde, gorago aipatu da kalitatezko lanen irakurketa bermatzeko idazlearen, lanaren eta irakurlearen arteko bitartekariak sendotu behar direla, besteak beste, aldizkari espezializatuak. Ildo horretan, kritika akademikoaren lana da kontsumitzaileari ematea aldizkari espezializatuen inguruko informazioa, azken horrek jakin dezan nora jo kritika fidagarrien bila. Bukatzeko, kritika mota honek bete dezakeen beste funtzio bat honetan datza: arteak bizitzarekin, zientziarekin, ekonomiarekin, etikarekin edota erlijioarekin dauzkan harremanak azaltzean.

Aipatutako ezaugarriez gain, literatur sistema sendo batek presentzia esanguratsua izan behar du irakaskuntza-sisteman. Ikasketa-planen barruan literaturari garrantzi handiagoa eman behar zaio, bigarren mailako ikasketa bihurtzea saihestuz. Horretarako, ezinbestekoa da, ezer baino lehen, irakasleek literaturarekiko duten ezagutza sendotzea. Horrekin batera, ikasleen irakurtzeko zaletasuna sustatu behar da, irakaskuntza-metodoak gaurkotuz eta irakurgaiak ikasleen interesetara hurbilduz.

Azkenik, garrantzitsua da hedabideek idazleak ezagutarazteko egin dezaketen lana. Hedabideek eskaini behar dute idazle eta lanen informazio sakona eta gaurkotua (alegia, ez da komeni denbora gehiegi igarotzea lana argitaratzen denetik hedabideetan tartea eskaini arte). Bukatzeko, saihestu egin behar dute erdigunean ez dauden idazle guztiei leku bera ematea, horien artean ere badaude-eta aldeak.

Horiexek dira literatur sistema sendo eta orekatuagoa lortzeko adituek aipatutako erronka nagusiak. Hurrengo atalean, literaturaren irakaskuntzan jarriko dugu begirada. Eskolak egiteko garrantzitsua dauka literatur sistemaren baitan; besteak beste, berari dagokio ikasleei (etorkizuneko irakurleei) literaturaren historia ezagutaraztea eta literatura irakurtzeko gaitzea. Hori horrela, garrantzi handia daukate eskolak eskaintzen duen ikuspegiak eta heziketa literarioak. Eskolaren gain dago, azken batean, sisteman dauden hutsuneak erreproduzitzea (esaterako, erdiguneen kontzeptua merkatu-irizpideekin lotuz) edo ikasleei irakastea dauden hutsuneekin kritiko izaten eta horiek, ahal den neurrian, gainditzen (adibidez, idazleen artean bi maila baino gehiago bereiziz edota narrazioaren nagusitasuna gainditu eta bestelako generoak ere irakurraraziz).

Euskal ikastetxeetan literatura nola lantzen den aztertzeko, idazle eta kritikariei proposatutako abiapuntu beretik abiatu naiz, baina oraingoan, irakaskuntza

hartuta helmuga. Horrenbestez, hurrengo atalean sakonduko dut irakaskuntza-sisteman egiten diren idazleen hierarkizazio-prozesuetan, eta horietan antzemandako hutsune eta erronkak zehaztuko ditut.

4. Euskal literaturaren irakaskuntza

Eskolak eginkizun garrantzitsua dauka literatur sistemaren egituraketan, bertan erabakitzen baita zein idazle transmitituko den belaunaldi batetik bestera, idazle batzuk betierekotuz eta beste batzuk, ezinbestean, baztertuz. Izan ere, literaturaren historia irakasteak derrigorrezko bihurtzen du idazle batzuk hautatzea, ezin baitira sortzen diren idazle eta lan guztiak ezagutu eta irakurri. Jarraian, ikusiko dugu nola sortu zen literaturaren historia irakasteko ideia, eta zein egiteko izan duen euskal ikastetxeetan.

4.1. Literaturaren historiaren transmisioa nazio-nortasuna indartzeko tresna gisa

Mugimendu erromantikoak izan ziren, XIX. mendearen hasiera inguruan³, historizismoan —eta ondorioz, idazle kanonizatueta— oinarritutako markoaren bultzatzaile nagusiak. Marko horretan, obra bakoitza zein egoera historikotan sortu zen aztertzea lehenetsi zen, garaien, estiloen, autoreen eta lanen historikotasuna landuz (Capdevila i Castells, 2005: 28).

Sentsibilitate erromantikoarekin, hizkuntza autoktonoekiko nahiz ahozko herri-literatura eta poesiarekiko interesa sustatu zen. Horrela, herriaren jakinduria sustatzearekin identifikatu zen hezkuntza, eta literaturari zegokion irakasgaia *literatura nazionalak* irakasteko baliatu zen. Horrekin batera, garaiko mugimendu nazionalistak ere kultur ondare nazionala zabaltzearen alde agertu ziren⁴.

Horrela, 1970 eta 1980ko hamarkadetara arte, lehenetsi zen ikasleek idazle kanonizatuen lanak irakurtzea. Hamarkada horietan, ordea, obra osoen irakurketa indartu zen, besteak beste, herri xehearen eskolaratzearen ondorioz. Ikasle berrien interesek eta motibazioek agerian utzi zuten ezinbestekoa zela eskola ulertzeko

3. Azurmendik (2007: 71) dioen moduan, ez dago mugimendu erromantikoen sorrera data eta lurralde zehatz batean kokatzerik:

Ikertzailerek ezin dute fenomenoaren definitu, ezin dute haren data mugarritu ere, geografikoki nola banatu ere ez dakite: batek 1770-1830 artean kokatzen ditu (Iraultza baino lehen hasita), besteak 1790-1850 artean; batek Ingalaterran hasten ditu, besteak Frantzia, Alemanian. Segurua da, dena delako fantasma hori, goizago edo beranduago Europa osoan agertu dela, eta 1800 inguruan ibili dela.

4. Dena dela, eta literaturak kontzientzia nazionala indartzeko zeukan funtzioa XIX. mendean indartu zela onartuta ere, funtzio hori aspalditik zetorren literaturaren kontzeptuarekin uztartuta. Izan ere, Even-Zoharrek (1993: 363) dioen legez, Grezian antzeman daitezke funtzio horren lehenengo zantzuak. Gainera, nahiz eta ideiarik zabalduena izan identitateek eragiten dituztela hizkuntzak eta hizkuntzek eta identitateek testuak, Greziako kasuak alderantzizko kausalitatea erakusten duela dio Even-Zoharrek (id. 364), alegia, testuek eragin zutela modu zehatz bateko identitatea. Ildo horretan, gogorarazten du Espainiaren kasua izan zela kohesio soziokultural hori lortzen lehenengoetarikoa, denak bat etorri behar ziren sinesmenak zabaldu baitzituen testuen bidez Mundu Berriaren konkistan. Horrekin lotuta, garrantzitsua da gogora ekartzea Zabaletaren lana (2000), non sakon aztertzen den Estatuak nola baliatu duten eskola nazionalaren irudia, historia eta tradizioa zabaltzeko, nazioarenganako zaletasuna eta berarekiko atxikimendua ezartzen saiatuz, horretarako sinboloak eraikiz eta, askotan, nazioaren tradizioa zein historia, edota nazioa bera ere, asmatuz.

modu berri bati lekua egitea (Sánchez eta Rincón, 1987: 12). Literaturaren kasuan, literaturaren historiak ez zituen betetzen ikasle gehienen beharrak, eta haien interesetatik aldendu egiten zen. Hortaz, ikasleak irakurketara hurbiltzeko, beren gustukoak izan zitezkeen liburuak irakurrarazteari ekin zioten irakasleek.

Giro hartan egin zen, 1969an, Cerisy-La Salleko kongresua. Bertan, literaturaren irakaskuntzaren gaineko hausnarketa garrantzitsuak egin ziren (Dobrovsky eta Todorov, 1971). Besteren artean, orduko literaturaren historiaren antzutasuna azaltzeko eginahala egin zen, azaleko azterketen azalpenetan oinarritzen zela argudiatuta. Horren aurrean, proposatu zen testua kokatzea literatur irakaskuntzaren erdigunean. Horrek ekarri zuen liburu osoen irakurketak eta testu-azterketak bihurtzea ikasgeletako jardunaren zutabe, eta aldaketa haren ondorioz, irakurgaiak aukeratzeko irizpideak ere errotik aldatu zirenez, ordura arte testu kanonizatuek izandako lehentasuna galdu zuten.

Euskal Herrian XIX. mendeko aldaketa soziopolitikoek eragin zuten euskal izaera eta kultura bultzatzearen aldeko mugimendua. Perezek (2004:76) ohartarazten duenez, XIX. mendearen amaieran Euskal Herriaren izaera juridikoa, politikoa, ekonomikoa, demografikoa eta kulturala erabat aldatu ziren. 1876an, foruak abolitu ostean, mugimendu abertzale eta euskaltzaleak euskal nortasuna aldarrikatzeari ekin zion, joera foruzalea eta autonomiazalea areagotuz eta euskal izaera sustatuz.

Euskal nortasuna indartzeko ahalegin horietan sortu ziren lehen euskal eskolak XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran. Bestalde, garai bereko gertaera garrantzitsu batek indartu egin zuen eskolan kontzientzia nazionala lantzearen garrantzia: Frantziako nahiz Espainiako Estatuetan XIX. mendean hasitako industrializazio kapitalistaren garapenarekin batera derrigorrezko eskolaratzea onartu zen⁵. Hortaz, batera etorri ziren derrigorrezko eskolaratzea eta euskal irakaskuntzaren lehen saioak.

Edozelan ere, euskal literaturaren irakaskuntza sistematikoa 1960ko hamarkada inguruan hasi zen (hamarkada horretatik aurrera euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza bermatuko zuten ikastolak hasi ziren sortzen Bizkaian eta Gipuzkoan). Gainerako herrialdeetan egin zen bezala, Euskal Herrian ere haur eta gazteengan nazio-nortasuna sortzea helburu hartuta, literaturaren alorrean idazle batzuk kanonizatu ziren; horiek izango ziren ondare literario nazionala osatuko zutenak, alegia, belaunaldiz belaunaldi memoria historikoan gordeko zirenak (aipagarriak dira, besteren artean, literatura idatziaren hastapenetan, XVI. mendean, Etxepare eta Leizarraga; XVII. mendean Axular eta, neurri apalagoan, Etxeberri Ziburukoa, Oihenart eta Tartas; prosagintzaren lehen urratsetan Juan Antonio Moguel, Resurrección M^a de Azkue eta, batez ere, Txomin Agirre; eta, azkenik, gerraurreko poesian Lizardi, Lauaxeta eta Orixe). Baina, literaturaren historia irakasteko helburuari denbora gutxiren buruan gehitu zitzaion testua ikaslearengana hurbiltzeko xedea.

5. Escarpitek (1981: 123) emandako datuen arabera, Frantziako Estatuan 1881ean onartu zen Hezkuntza Sistema orokor eta derrigorrezkoa; Espainiako Estatuan, berriz, 1904an.

Horrela, literaturaren irakaskuntzan bi helburu nagusitu ziren; batetik, idazle kanonizatuetan oinarritutako literaturaren historiaren transmisioari zegokiona. Bestea, testuen irakurketan oinarritutakoa, ikasleen gertukoak izan zitezkeen liburu-erantzuetan bitartez. Ikusiko dugun moduan, bi helburu horiek gaurdaino iraun dute euskal ikastetxeetan.

4.2. Euskal literaturaren irakaskuntza zertan den

Gaur egungo egoerara etorrira, hezkuntza-curriculumak *Euskal hizkuntza eta literatura* derrigorrezko irakasgai gisa jasotzen du lege-proposamenen, Lehen Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino. Dena dela, hizkuntza eta literatura irakasgai bakarrean bilduta egonik ere, curriculum-legean bi jakintzagaien edukiak ez dira modu bateratuan proposatzen. Horrek eragin du (Batxilergoan, bederen) irakasleek ere hizkuntza eta literatura modu berezitan lantzea, eta ikusiko dugun moduan, literaturaren presentzia ia erabat desagertzea.

Horren arrazoia Euskal Herrian bizi dugun egoera soziolinguistikoa dugu; egoera horren eraginez, ikasleek, oro har, maila kaskarra dute euskaraz. Ondorioz, irakasle askok erabakitzen dute (Alonso, 2008: 66) hizkuntzari eskaintzea irakasgaiaren ordurik gehienak.

Hori horrela, literatura ikasgelan ikastetxe gutxi batzuetan lantzen da; gainerakoetan, etxeko irakurgaietara zokoratzen da literaturaren presentzia. Beraz, oro har, bi lanketa mota bereizten dira euskal ikastetxeetan: literaturaren historiaren transmisioa eta liburuen irakurketak (azken hori praktika hedatua dugu).

Literaturaren historia irakasten denean, irakasleek testuliburua izan ohi dute euskarri nagusi; horrela, literaturaren historiako pasarte garrantzitsuenak zeintzuk izan diren irakasten zaie ikasleei, eta horrekin batera, zenbait testuren iruzkinak egiten dira (gehienetan iruzkin horiek ikuspegi linguistikoa izaten dute, eta ez dira egoten bideratuta testuen ulermena sakontzera). Bestalde, ikasturtean zehar literaturak daukan presentzia urriak ezinbesteko bihurtzen du literaturaren historia irakastean eduki batzuk aukeratu eta besteak baztertzea. Ondorioz, testuliburuetatik pasarte gutxi batzuk lantzen dira, eta oro har, irakasleek narrazioari dagozkion edukiak hautatzen dituzte (*id.* 69). Horrenbestez, ikasleek literaturaren historian nabarmendu diren idazleen ikuspegi zatikatua jasotzen dute.

Laburbilduz, ikastetxe askotan ikasleek literaturarekin duten harremana etxeko irakurgaietara mugatzen da; ikasgelan literatura lantzen dutenen kasuan, berriz, jite linguistikoko testu-iruzkinak egiten dira, eta literaturaren historiari dagozkion lanketetan, narrazio-idazleak soilik aipatzen dira.

Horrek dituen ondorioak, besteak beste, honakoak dira: batetik, ikasleak ez dira gaitzen literatura irakurtzeko; izan ere, testuen ulermenean ez sakontzeaz gain, literatur genero bakarrera mugatzen dira irakurketak. Bestetik, eskolak ez du bermatzen ikasleek euskal literaturaren erreferenteak ezagutzea. Izan ere, ikastetxe askotan ez dira aipatzen literaturaren historian nabarmendutako idazleak, eta aipatzen direnetan narrazioa idatzi dutenak bakarrik aipatzen dira.

Hurrengo atalean, eskolan nabarmentzen diren idazleak ezagutuko ditugu, ondoren ikusteko zein faktore izaten diren esanguratsiak nabarmendutako erdiguneen eraketan⁶.

4.2.1. Literaturaren historia irakastean nabarmendu diren erdiguneak

Literaturaren historian nabarmendu diren idazleen erdigunea erdigune kualitatiboa dugu. Gune horren ikuspegirik osoena testuliburuek eskaintzen dute, bertan biltzen baitira testuliburua idatzi arteraino egondako idazle esanguratsuenak. Hurrengo taulan ikusiko dugu zein den testuliburuek iradokitzen duten erdigunea⁷.

Lehenengo multzoa	Txillardeggi
	Gabriel Aresti
	Jon Mirande
	Bernardo Atxaga
	Ramon Saizarbitoria
Bigarren multzoa	Joseba Sarrionandia
	Anjel Lertxundi
	Joxe Azurmendi
Hirugarren multzoa	Bitoriano Gandiaga
	Juan Mari Lekuona
	Koldo Izagirre
	Joxean Artze
	Joan Mari Irigoien

1. taula. Testuliburuek nabarmendutako idazleak.

Goiko taulan hiru multzo bereizi ditut, eta lehen multzoan kokatu ditut liburuetan leku handiena eskaini zaien idazleak: Txillardeggi, Aresti, Mirande, Atxaga eta Saizarbitoria. Multzotik multzora alde nabarmenak daude idazleen presentziari dagokionez; hala ere, bigarren eta hirugarren multzoetan kokatzen diren idazleek ere leku esanguratsua dute testuliburuetan. Horrek iradokitzen du erdigunean koka daitezkeela hiru multzoak, nahiz eta mailak bereizi.

6. Horretarako, azterketa kualitatiboan zein kuantitatiboan oinarritu naiz. Informazio-iturri nagusiak honako hauek izan ditut: Batxilergoko hemeretzi irakasleri egindako sakoneko elkarrizketak (Alonso, 2008) eta hogeita bat ikastetxetako 800 ikaslek baino gehiagok erantzundako inkestak (Alonso, 2010a). Ildo horretatik, aipatu nahi nuke azterketan Hego Euskal Herriko Batxilergoko ikastetxeak izan ditudala jomuga. Iparraldea azterketatik kanpo uzteko arrazoia honakoa izan da: Iparraldeko hiru lurraldeetan bakarra da Batxilergoa euskaraz eskaintzen duen lizeoa. Hortaz, ezinezkoa izango litzaziguke Iparraldeko irakaskuntza-ereduaz hitz egitea, Lizeo horren irakaskuntza-ereduaz soilik ariko ginatkeelako. Egoera horrek behartu nau azterketa Euskal Herriko gainerako lau lurraldeetara mugatzera (aztertutako ikastetxeen zerrenda ezagutzeko, ikusi Alonso, 2008:135).

7. Datuak biltzeko edukien analisiaren metodologiak baliatu naiz. Azterketa sakonagorako ikusi Alonso, 2010b.

Oro har, literatur ibilbide luzea duten idazleak dira erdigunea osatzen dutenak, eta ez daude zuzenean lotuta literatur genero bakarrarekin. Narrazioa idatzi dutenez gain, beste genero batzuetan nabarmendu direnak ere ageri dira, hala nola Aresti, Mirande, Azurmendi edo Artze.

Jarraian, ikusiko dugu zeintzuk diren ikasgeletan, literatura lantzean, gehien aipatzen diren idazleak.

Lehenengo multzoa	Bernardo Atxaga
	Joseba Sarrionandia
	Ramon Saizarbitoria
	Anjel Lertxundi
Bigarren multzoa	Joan Mari Irigoien
	Txillardegi
Hirugarren multzoa	Jon Arretxe
	Pako Aristi
	Xabier Mendiguren
	Arantxa Urretabizkaia
	Gotzon Garate

2. taula. Ikasgeleten nabarmendutako idazleak.

Ikasgelan gehien aipatzen diren idazleetan ere hiru multzo, bederen, bereizi daitezke aipamen kopuruaren arabera. Lehenengo bi multzoetako idazleek bat egiten dute testuliburuak nabarmentzen dituztenekin. Hirugarren multzoan, berriz, bestelako idazleek dute lekua (batetik, testuliburuetan agertu bai, baina erdigunea betetzen ez dutenek; bestetik, eta geroago ikusiko dugun moduan, ikastetxeetan gehien irakurtzen direnek). Aipagarria da hiru multzoetan nabarmendu direnen artean, denek idatzi izan dutela narrazioa. Aldiz, testuliburuetan nabarmendu bai, baina narrazioa idatzi ez duten idazleak ez dira oso aipatuak ikasgeletan.

Horrek azaltzen du goiko taulako hirugarren multzoan idazle batzuek duten presentzia. Izan ere, irakasleek testuliburuak izan ohi dituzte erreferentzia nagusi, baina narrazioaren edukietara mugatzen dira. Hain zuzen ere, eduki horietan leku nabarmena dute hirugarren multzoan ageri diren Urretabizkaia eta Mendigurenek (Alonso, 2010b).

Laburbilduz, ikasgelako edukietan eragin handia dauka testuliburuaren ikuspegiak, baina irakasleek ikuspegi horri literatur generoaren iragazkia ezartzen diote, narrazio-idazle eta -lanak soilik landuz. Ondorioz, ikasgelan pobretu egiten da eskola-liburuetan islatzen den erdigunea, genero bakarrera mugatuz. Ildo horretan, baldin eta onartzen badugu testuliburuak nolabaiteko hierarkia kualifikatua ezartzen dutela, esan daiteke ikasgelan desitxuratu egiten dela hierarkia hori.

Azkenik, irakurgaietan nabarmentzen den erdigunea ezagutuko dugu; modu horretan, erdiguneen arteko berdintasunak eta aldeak ikusiko ditugu.

4.2.2. Irakurgaietan nabarmentzen den erdigunea

Euskal ikastetxeetan gainbehera doa literaturaren presentzia. Horren eraginez, ikasleak galtzen ari dira euskal idazle esanguratsuenen ikuspegia, eta orain, irakurtzen dituzten autoreak bihurtu zaizkie erreferente nagusi. Gertaera horrek galdera hauen gainean hausnartzera garamatza: zer irakurtzen dute egungo gazteek? nola aukeratzen dira irakurgai horiek?

Hurrengo taulan jaso ditut 2004-2005 ikasturtean gehien irakurri ziren idazleak eta liburuak.

Lehenengo multzoa	Bernardo Atxaga <i>Soinujolearen semea</i> <i>Obabakoak</i> <i>Zeru horiek</i>
Bigarren multzoa	Julen Gabiria <i>Connemara gure bihotzetan</i> <i>Han goitik itsasoa ikusten da</i>
	Ramon Saizarbitoria <i>Kandinskyren tradizioa</i> <i>Egunero hasten delako</i>
Hirugarren multzoa	Fernando Morillo <i>Ortzadarra sutan</i> <i>Gloria mundi</i>
	Joan Mari Irigoien <i>Ipuin batean bezala</i> <i>Odolean neraman</i>
	Xabier Etxeberria <i>Egun denak ez dira berdin</i>
	Unai Elorriaga <i>SPrako tranbia</i>
Laugarren multzoa	Juan Luis Zabala <i>Galdu arte</i> <i>Agur Euzkadi</i>
	Patxi Zubizarreta <i>Eztia eta ozpina</i>
	Jon Arretxe <i>Ostegunak</i> <i>Ostiralak</i>
	Jasone Osoro <i>Tentazioak</i>
	Anjel Lertxundi <i>Hamaseigarrenean aidanez</i>
	Arantxa Urretabizkaia <i>Koaderno gorria</i>
	Joxean Sagastizabal <i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>
	Jokin Muñoz <i>Bizia lo</i>

3. taula. Irakurgaietan nabarmendutako idazleak.

Irakurgaiak azaleratzen duten idazleen erdigunea goiko lau multzoetan sailkatu dut. Hala ere, gainerako erdiguneetan gertatu den bezala, multzotik multzora asko aldatzen da idazleen presentzia. Esaterako, lehenengo multzoan dagoen Bernardo Atxaga 204 ikaslek (ikasleen % 32,1ek) irakurri zuten. Laugarren multzoko idazleak, berriz, 57 ikaslek (% 9k) edo gutxiagok.

Bestalde, datuek iradokitzen dute erdigune hau askotariko idazleek osatzen dutela: ibilbide literario sendoa dutenek, ibilbide laburragokoek, kontsagratuek, kontsagratu gabeek... Gainera, liburu klasikoek nahiz nobedadeek dute lekua. Dena dela, aniztasunaren baitan, badira bi konstante nabarmen ageri direnak; lehena, emakumeen presentzia urria. Bigarrena, narrazioaren erabateko nagusitasuna.

Ikasturte bakarreko datuak direnez, kontuz azertu beharrekoak dira. Hala ere, aintzat hartuta hogeita bat ikastetxetako 800 ikasleren esperientzietan oinarritutako datuak direla, huts egiteko beldur handirik gabe esan daiteke lehenengo multzoa (alegia, idazlerik irakurrienena) gainerako multzoak baino egonkorragoa izango dela ikasturte batetik bestera. Bestela, kasualitate handia litzateke hainbeste ikastetxetako hainbeste ikaslek idazle bera irakurtzea, eta ikasturte berean.

Bukatzeko, aipagarria da ikasgeletan aipatuenak diren idazleek eta etxean gehien irakurtzen direnek bat egiten dutela zenbait kasutan. Horrela, bi eremuetan nabarmendu zaizkigu Atxaga, Saizarbitoria, Irigoien, Lertxundi, Urretabizkaia eta Arretxe. Horren harira, pentsa daiteke irakurgaiak aukeratzean erabakigarria dela literaturaren historian izandako lekua.

Bukatzeko, literaturaren irakaskuntzari buruz hausnartzeko funtsezkoak iruditzen zaizkidan hiru faktore aztertuko ditut: idazleak nahiz lanak ezagutarazteko ikastetxeetan egiten diren promozioak, edukiak aukeratzean sariketek duten oihartzuna eta ikasleen esperientzia literarioetan literatur generoek duten lekua.

4.2.3. *Erdiguneen eraketa irakaskuntzan: promozio-lanak, sariketak eta literatur generoak*

Irakurgaiak aukeratzeko orduan, bi irakasle mota bereiz daitezke: multzo batean, idazle kanonizatuen lanak irakurrarazten saiatzen direnak. Horiek multzo txikia osatzen dute, eta oro har, ikasgeletan literaturaren historiari lekua egiten saiatzen dira. Beste multzoan, irakurgaien bidez ikasleen irakurzaletasuna sustatzea lehenesten duten irakasleak ditugu⁸. Bigarren multzoko irakasle gehienak bat datoz esatean irakurgaiak aukeratzeko irizpide nagusiak honako biak direla: Euskal Idazleen Elkarteak antolatzen duen *Idazleak ikastetxeetan* programa, eta argitaletxeek egiten dituzten promozio-lanak (bai beren argitalpenen katalogoen bidez, bai idazlea ikastetxera ekartzeko eskaintzaren bidez).

Idazleak ikastetxeetan programari dagokionez, esan daiteke idazleak bere burua ezagutarazteko baliatzen duen ekimena dela (edozein idazlek har dezake parte programa horretan). Horren bitartez, idazlea ikastetxera joan eta liburuaren gainean jarduten du ikasleekin. Ekimen horretan parte hartzeko, ikastetxeak aurrebaldintza bat onartu behar du: hitzaldia jasoko duten ikasleek idazle horren liburu bat irakurtzea (programan bertan zehazten dira irakur daitezkeen izenbu-

ruak). Hitzaldi horiek eragin handia dute irakurketetan, eta ez bakarrik idazlea ikastetxera joango den ikasturtean; gerora ere, ikasle zein irakasleek lehendik ezaguna duten idazlearen liburuak aukeratzeko joera iradokitzen dute (Alonso, 2008: 73).

Argitaletxeen promozio-lanari dagokionez, promozio-bide bat editorialak argitaratutako liburuen katalogoak ikastetxera eramatean datza; kasu batzuetan, editorialetako langileak irakasleekin egoteaz arduratzen dira, eta irakasleei maila bakoitzerako egokiak izan daitezkeen liburuak gomendatzen dizkiete.

Bestalde, *Idazleak ikastetxeetan* programaz eta argitaletxeen promozio-lanez gain, sariei ere erreparatzen diete multzo honetako irakasleek. Gogora dezagun euskal idazle eta kritikariek aipatu dutela erdiguneak eratzean hiru sari direla garrantzitsuak: Euskadi Sariak, Espainiako Sari Nazionala eta Espainiako Kritika Saria. Horietako bakoitzak irakaskuntza-sisteman daukan oihartzuna ezberdina da. Hurrengo lerroetan bildu ditut sariketen azterketak (Alonso, 2010a: 102) azaleratu dituen emaitza interesgarrienak.

Euskadi Sariak jaso dituzten idazleen izenei erreparatuta, esan daiteke sari hauen oihartzuna urria dela bai testuliburuetan, bai ikasgeletako aipamenetan. Aipagai ditugun sariek irakurgaietan iradokitzen dute eragin garrantzitsuena. Izan ere, saria jasotako Muñoz, Saizarbitoria, Irigoien eta Lertxundi idazlerik irakurrienetarikoak izan ziren 2004-2005 ikasturtean. Dena dela, ez da erraz jakiten azken hiruren presentzia zerk eragin zuen, Euskadi Sariak, Kritika Sariak edota literaturaren historian kotsagratu izanak. Azken batean, Euskadi Sariak irakaskuntzan oihartzun handia balute, ez litzateke erraz ulertuko saria irabazitako gainerako idazleak hain gutxi irakurtzea.

Espainiako Sari Nazionala jaso duten euskal idazleei dagokienez, gutxiegi dira ondorio garbiak ateratzeko⁹. Edonola ere, pentsa daiteke narrazio-lan batek sari hori jasotzeak segurtatu egiten duela irakaskuntzaren zirkuituan sartzea, hedabideetan eta saltokietan daukan oihartzuna dela-eta. Ildo horretatik, aipatzea komeni da Mariasun Landa dela, saria irabazitako hiru idazleen artean, oihartzun gutxien izan duena aztertutako ikastetxeetan. Dena dela, horren arrazoia literatur generoan dago ziurrenik, Landarena haur- eta gazte-literaturaren alorrekoa baita (hortaz, beharbada beste irakasmilla batzuetan izango du oihartzuna). Atxaga eta Elorriaga, berriz, irakurgaien erdigunean kokatzen dira (aztertutako ikasturtean ikasleen % 32,1ek irakurri zuen Atxagaren lanen bat —horien artean, *Soinujolearen semea* eta saria irabazitako *Obabakoak* azpimarratu behar dira—, eta % 10,2k Elorriagarenen bat —saria irabazitako *SPrako* tranbia, batez ere—).

Bukatzeko, Espainiako Kritika Saria aipatzen zuten adituek erdiguneetan eragina duen hirugarren sariketa gisa. Egindako azterketaren arabera, poesiaren alorrean ematen den Kritika Sariak ez du oihartzunik ez literaturaren historia

8. Esan behar da badagoela erdibideko aukeraren alde egiten duenik ere, liburu klasikoak eta nobedadeak tartekatuz.

irakastean, ez eta irakurgaiak aukeratzean ere. Narrazioan ematen diren sariek, ordea, lotura interesgarriak azaleratzen dituzte irakaskuntza-sistemako erdiguneekin. Izan ere, sari hori jasotako idazleek irakurgai guztien % 38,3 betetzen dute. Beraz, ikasturteko irakurgaietan hamarretik lau Kritika Saria jasotako idazleenak dira, eta hori aintzat hartzeko moduko datua da (1.388 irakurketatik 531 dira saritutako idazleenak). Ildo beretik, esan behar da saritutako idazleen artean sari bat baino gehiago jasotako idazleak nabarmentzen direla gehien irakurritakoen artean: Irigoien, Atxaga eta Saizarbitoria.


Bestalde, datuek egiaztatu egiten dute idazle nahiz kritikariek esandakoa; alegia, Kritika Sariak lagundu egiten duela hierarkia kualitatiboan erdiguneratzen. Izan ere, literaturaren historia irakastean leku berezia betetzen dute saria jasotako idazleek (horixe iradokitzen dute ikasgeletako aipu kopuruek).

Kortazarrek dio (2006: 46) zenbait idazlek Kritika Sari bat baino gehiago jaso izana erabakigarria izan dela idazle horien kanonizazio-prozesuan. Beraz, Kritika Sariak eragin zuzena dauka erdiguneratze kualitatiboan; era berean, erdigune kualitatiboak lotura zuzena dauka literaturaren historiaren transmisiorako hautatzen diren idazleekin.

Laburbilduz, Euskadi Sariek ez dute eragiten hierarkia kualitatiboan, eta irakurgaiak hautatzeko orduan ere ez dira irizpide erabakigarria. Hala ere, pentsa daiteke idazle batzuei bideak ireki dizkietela jendarteaz ezagutarazteko. Espainiako Sari Nazionalari dagokionez, pentsa daiteke segurtatu egiten duela saritutako idazlea irakurria izatea. Horren erakusgarri dugu Elorriaga irakurgaien erdigunean kokatu izana. Edonola ere, interesgarria izango da gertutik aztertzea zer-nolako lekua lortzen duen etorkizunean Uribek, horrek lagunduko baitigu Sari Nazionalaren eraginak sakonago ezagutzen. Azkenik, Kritika Sariak azaleratu ditu daturik interesgarrienak, hierarkia kualitatiboan daukan isla dela-eta. Saria jasotako idazleek testuliburuetan nahiz ikasgeletan leku garrantzitsua betetzen dute. Bestalde, irakurgaietan ere esanguratsua da idazle horien presentzia, dela hierarkia kualitatiboan nabarmendu direlako, dela merkatuan arrakastatsu bihurtu direlako.

Bukatzeko, ikasleen esperientzia literarioetan genero bakoitzak daukan lekuari erreparatuko diogu. Ikusi dugu testuliburuetan nabarmentzen diren idazleak ezin direla literatur genero bakar batekin lotu. Aitzitik, literaturaren historia irakasten denean, irakasleak narrazio-idazleetara mugatzen dira. Zein da, baina, generoen lekua urteko irakurgaietan? Datuak irudietara ekartzeak egoera modu grafikoagoan ikusten lagunduko digulakoan nago.

9. Ikastetxeetan galdeketak egin ostean jaso zuen Uribek Espainiako Sari Nazionala. Hori dela-eta, datuen irakurketan ez dut egile hori aintzat hartu.



Goiko grafikoari erreparatuta, argi dago narrazioa dela (eleberria, nagusiki) etxeko irakurgaien jomuga. Gainerako generoen presentzia hutsaren hurrengoa da. Horrek esan nahi du merkatuak eragindako generoen hierarkia mantendu egiten duela irakaskuntza-sistemak, nahiz eta hezkuntza literarioaren helburuak izan behar duen, besteak beste, ikasleak askotariko generoak irakurtzeko gaitzea. Horrek iradokitzen du merkatuko joerek indarra dutela literaturaren irakaskuntzan, eta kalitate-irizpideei nahiz irizpide pedagogikoei gailentzen ari zaizkiela.

Laburbilduz, irakurgaien erdiguneak areagotu egiten ditu literatur generoen hierarkiak. Ildo horretan, gogora ekarri nahi nuke idazle eta kritikariek egindako gogoeta bat; hain zuzen, literatur sistema sendo batek mailak behar dituela erdigunearen eta periferiaren artean, eta erdigune estu eta zurrunik saihestu egin behar direla. Kasu honetan, erdigunearen zurruntasuna agerian geratu da: narrazio-lanek osatzen dute gunehori, eta periferian geratzen dira gainerako guztiak.

5. Ondorioak

Artikulu honek agerian utzi du euskal literaturaren erdiguneez dihardugunean ezinbestekoa dela hierarkia kualitatiboa eta kuantitatiboa (edo komertziala) bereiztea. Hala adierazi dute idazle eta kritikariek literaturaren ikuspegi orokorra eskaintzean, eta halaber, erdiguneek dituzten askotariko izaerak geratu dira agerian irakaskuntza-sistemaren azterketan ere. Literaturaren irakaskuntzan, oro har, hiru erdigune bereizten dira: urteko irakurgaietan nabarmentzen dena, testuliburuak islatzen dutena eta ikasgelan lantzen diren idazleek osatzen dutena. Lehenengoak lotura zuzena dauka hierarkia komertzialarekin; izan ere, irakasleek aipatzen dituzten irizpideetatik ondoriozta daiteke hein handi batean merkatuari

lotuta dagoela Batxilergoan irakurtzen diren liburuen aukeraketa. Testuliburuetan eta ikasgeletako lanketetan nabarmentzen diren erdiguneei buruz esan daiteke lotura daukatela hierarkia kualitatiboarekin.

Bestalde, adituek aipatu dute ezinbestekoa dela erdigunearen eta periferiaren artean maila gehiago bereiztea; bestela, erdigunean sartzen ez diren idazle guztiek trataera bera izateko arriskua dute. Irakaskuntzaren kasuan, ikusi dugu erdigunean bertan ere mailak bereizten direla, eta erdiguneei eta periferiei artean ere berdin gertatzen da (Alonso, 2010b). Horrekin lotuta, idazleei egiten zaizkien aipamenei kopurua orekatuagoa izan badaiteke ere, irakurgaien erdiguneari buruz pentsa daiteke erdigune horren beraren ezaugarria izan daitekeela mailakatua izatea; hain zuzen ere, zaila delako erdiguneko irakurgai guztiek irakurle kopuru bera izatea (hala ere, garrantzitsua da, kasu honetan, mailatik mailara dauden jauziak handiegia ez izatea, hierarkia orekatua izateko).

Erdiguneei arteko eraginei dagokienez, testuliburuetakoa erdiguneei guztiz baldintzatzen du ikasgelakoa (literaturaren historiaren transmisioari dagokiona). Era berean, literaturaren historiako erdiguneei ere badauka eraginik irakurgaien erdigunean; izan ere, literaturaren historian nabarmentzen diren idazleak aukeratzeko dituzte irakasle batzuek irakurrarazteko. Dena dela, ikusi dugu literaturaren historian nabarmendu izana ez dela izan ohi irakurgaiak hautatzeko oso irizpide erabilia eta, hala ere, irakurgaietan pisu handia dutela idazle horietako batzuek (batez ere Atxagak, Saizarbitoriak, Irigoienek eta Lertxundik). Ondorioz, pentsa daiteke irakurgaien erdigunean sartu direla ez kalitate-irizpideen ondorioz soilik; baita merkatuari lotutako faktoreen bidez ere.

Horrekin batera, esan daiteke literaturaren irakaskuntzan kalitate- eta merkatu-irizpideak nahastu egiten direla, bakoitza bestearekiko indar-harremanean nagusitu nahian. Indar-korrelazio horretan, literaturaren historiak nabarmendu dituen idazleen itzala txikituz doa, eta oro har, merkatu-irizpideak ari dira indartzen. Horrek beharrezko egiten du etorkizun hurbilean literaturaren historiaren transmisioa berreskuratzea eta ikasleak irakurle kritiko gisa hezteko helburuari heltzea. Azken batean, adituetako batek zioen moduan, premisa batetik abiatzen gara etorkizunera: irakurle kritikorik ez izateak euskal literaturaren sistema ahuldu baino ez dezake egin, eta literaturaren geroa merkatu-irizpideetara gero eta makurtuago utzi. Beraz, ezinbestekoa da irakurketa kritikoak sustatzea.

Horrez gain, kritika akademikoak (eta oro har, unibertsitateak) badu egiteko garrantzitsurik Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora bitartean diharduten irakasleen formazioan. Kritika akademikoari dagokio, halaber, haur- eta gazte-literaturako lanen kritika ere egiten dela bermatzea, irakaskuntzan diharduten irakasleek kritika hori erreferentzia gisa baliatu ahal izan dezaten. Horri lotuta, herri honetako kultur politikak bitartekoak jarri behar ditu hori guztia bideratzeko beste kritikari egon daitezkeen, eta unibertsitateak bere gain hartu behar du horien prestakuntza.

Bestalde, bideak artikulatu behar dira irakaskuntza-programetan literatura ez dadin bigarren mailan geratu. Errealitateak erakusten du ikasgelan literaturak daukan presentzia gainbehera doala. Hizkuntza irakasteari eskaintzen zaizkio

hizkuntza eta literatura irakasgaiari dagozkion orduak, eta ikastetxe askotako ikasleek literaturarekin daukaten harremana urteko bizpahiru irakurgaietara mugatzen da. Gainera, irakurketa horien hautaketa ez da egiten ez literaturarekiko kalitate-irizpideen arabera, ez eta irizpide pedagogikoen arabera ere (azken honek eskatuko luke irakurgaiekin helburu zehatzak lantzea eta ulermenean sakontzea). Horrek ez du esan nahi kalitaterik gabeko liburuak irakurtzen direnik, baina hautaketa-moduek ez dute aukera hori baztertzen.

Literaturaren historiaren transmisioari dagokionez, arestian esan dut jardunbide honek desagertzeko joera erakusten duela. Ondorioz, ikasleak ezagutza urria ari dira jasotzen euskal literaturaz, eta horrek eragingo du etorkizun hurbilean erreferente kulturalak galtzea. Akulturizazio horrek bete-betean egiten du talka egun hitzetik hortzera darabilgun kultur aniztasunaren sustapenarekin. Izan ere, norbere ondare kulturala ezagutu eta baloratu ezean, zaila da beste inorena baloratzea.

Bukatzeko, literatur sariketen inguruko hausnarketa txiki bat egin nahi nuke. Ikusi dugu Espainiako Kritika Sariak nahiz Sari Nazionalek eragin zuzena dutela euskal sistemako erdigune kualitatiboa (lehenengoaren kasuan) eta kuantitatiboa (bigarrenarenean) eratzeko orduan. Hortaz, Apalategik (*Berria*, 2009-XI-28) ohartarazten duen moduan, Espainian erabakitzen dituzte, gaur egun, euskal idazleen arteko hierarkiak. Irakurle garen heinean, denoi dagokigu hausnartzea zenbateraino hartzen ditugun aintzat aipatutako sariak; baina bereziki, euskal kultur eta hezkuntza-agenteen egitekoa da hausnarketa sakona egitea sari horiei ematen zaien oihartzunari buruz.

Bibliografia

- Alonso, I. (2008): *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai. Idazle, kritikari eta irakasleen iritziak teoria komunikatiboan argitara*, Labayru Ikastegia eta Amorebieta-Etxanoko Udala, Bilbo.
- , (2010)a: *Erdigune literarioak irakaskuntzan. Proposamen teorikoetatik gaur egungo errealtatera*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2010)b: *Euskal literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko Batxilergoan*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Azurmendi, J. (2007): *Volkgeist Herri Gogoia. Ilustraziotik nazismora*, Elkar, Donostia.
- Bourdieu, P. (1992): *Les règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*, Éditions du Seuil, Paris [gaztelaniazko bertsioa (1995): *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*, Anagrama, Bartzelona].
- Capdevila i Castells, P. (2005): *Experiencia estética y hermenéutica. Un diálogo entre Immanuel Kant y Hans-Robert Jauss*, Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona.
- Dobrovsky, S. eta Todorov, T. (zuz.) (1971): *L'enseignement de la littérature*, Plon, Paris.
- Escarpit, D. (1981): *La littérature d'enfance et de jeunesse*, Presses universitaires de France, Paris [gaztelaniazko bertsioa (1986): *La literatura infantil y juvenil en Europa*, FCE, Mexiko].
- Even-Zohar, I. (1990): "Polysystem Studies", *Poetics Today*, **11:1** (monografikoa).
- , (1993): "A Función da literatura na creación das nações de Europa", *Grial*,

- XXXI**, 441-458 [gaztelaniazko bertsioa (1994): "La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa", in D. Villanueva (arg.), *Avances en Teoría de la Literatura*, Donejakueko Unibertsitatea, Donejakue, 357-377].
- , (1997): "Factors and Dependencies in culture: A Revised Outline for Polysystem Culture Research", *Canadian Review of Comparative Literature/ Revue Canadienne de Littérature Comparée*, **24.1**, 15-34 [gaztelaniazko bertsioa (1999): "Factores y dependencias en la cultura. Una revisión de la Teoría de los Polisistemas", in M. Iglesias (arg.), *Teoría de los Polisistemas*, Lecturas, Madril, 23-52].
- Juaristi, P. (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Kortazar, J. (2006): "La literatura vasca", *Quimera*, **268**, 46-50.
- Lotman, I. (1973): "Kanonicheskoe iskusstvo kak informatsionnyi paradoks", in I. Lotman, *Problemy kanona v drevnem i srednevekovom iskusstve Azii i Afriki*, Nauka, Mosku, 16-22 [gaztelaniazko bertsioa (1996): "El arte canónico como paradoja informacional", in I. Lotman, *La Semiosfera I*, Cátedra, Madril, 182-189].
- Perez, K. (2004): *Curriculum eta testuliburua Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Sánchez, J. eta Rincón, F. (1987): *Enseñar literatura*, Cuadernos de pedagogía, Laia, Bartzelona.
- Todorov, T. (1971): "Conclusion", in S. Doubrovsky eta T. Todorov (zuz.), *L'enseignement de la littérature*, Plon, Paris, 627-635.
- Zabaleta, I. (2000): *Nazioa eta Hezkuntza-Sistema espainiarraren sorrera*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

